

ZIBERSTEILAS HAURRESKOLAK 3

STEE-EILAS-en informazio elektronikoa

urriak 2

Kaixo guztioi,

Dakizuenez, irailaren 17an sindikatu guztiak batera eta Batzar Parekidean, gutun bat luzatu genuen LEPetako epaimahaiari helarazteko.

Honetan, 2. parteari buruzko ereduren bat edo egiteko irizpide batzuk ematea eskatu genizkien eta jaso dugun erantzuna ez da oso baliagarria izan. Haurreskolako web orrialdean zehaztapen batzuk agertuko direla esan digute, baina inola ere ez eredurik, haien ustez hori hautagaien lana baita.

Beraz, ea zer emango diguten itxarotea baino ezin dugu egin. Dena den, zerbait gehiago dakigunean esango dizuegu.

Bigarren frogari buruz emango dizkiguten irizpideen zain gaude hitzaldiak egiteko. Hala ere, gure aditu batzuekin harremanetan gaude, hitzaldietako datak zehazteko.

Lehenengo parteari buruz, inpugnatutako galderen inguruan ez dute ezer konkretuki esan. Argibide batzuk emateko asmoa dutela baino ez.

Bestalde, jakinarazten dizuegu egoitzaren antolaketa dela eta, gure arratsaldeak aldatu ditugula zuei hobeto erantzun ahal izateko, beraz, hemendik aurrera horrela izango da:

- Astelehenetan Bilboko egoitzan Ceci
- Asteartetan Gipuzkoako egoitzan Kizkitza
- Asteazkenetan Arabako egoitzan Iñaki
- Ostegunetan Bilboko egoitzan Naiara

INFORMATZEN JARRAITUKO DUGU.

| | | | | |
|--|----------------|----------------|----------------|-------------------------|
| ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C | 01001 Gasteiz | ☎ 945 14 11 04 | ☎ 945 14 43 02 | araba@stee-eilas.org |
| BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu) | 48003 Bilbo | ☎ 944 10 02 98 | ☎ 944 10 13 60 | bizkaia@stee-eilas.org |
| GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealdea) | 20015 Donostia | ☎ 943 46 60 00 | ☎ 943 45 36 27 | gipuzkoa@stee-eilas.org |
| NAFARROA: Descalzos 72 (lonja) | 31001 Iruñea | ☎ 948 21 23 55 | ☎ 948 27 00 48 | nafarroa@stee-eilas.org |